

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAN MASKOTAREN (TXAKURRAK) BISITA JASO NAHI DUTEN PAZIENTEENTZAKO INFORMAZIOA

Arabako Albaitarien Elkargo Ofizialak ezarritako baldintzak betetzen dituzten, Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea bermatzen duten eta Arabako ESIko Medikuntza Prebentibo eta Osasun Publikoko Zerbitzuak onartutako txakurrek jabeei bisita egin ahal izango diete ospitaleratuta daudenean, 2 modalitatetan:

1. Arabako Unibertsitate Ospitaleko bi egoitzetatik (Txagorritxu eta Santiago) kanpo dagoen elkargune batean, baina perimetro-esparruaren barruan.
2. Ospitaleetako eraikinen barruan, 2 aukera egongo dira:
 - 2.1. Jenderik gabeko hall-eremu komun batean.
 - 2.2. Ospitaleratutako pertsonaren logelan bertan.

Helburu Orokorra pazienteen ongizate emozionala eta psikologikoa erraztea da, eta, horrela, erosotasun-uneak, lotura afektiboa eta bizi-kalitatea sustatuko dira gaixoen gaixotasun-prozesuan.

Arabako Albaitarien Elkargo Ofizialak "ARABAKO ESIko OSPITALE EREMUKO PAZIENTEEI TXAKURREK BISITA EGITEKO ALBAITARITZA-GIDA" egin du. Gida horretan, besteak beste, zehaztu eta ezarri du hauek betetzea: txakurraren laguntzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa pasaporte ofiziala eta albaitariaren ziurtagiri ofiziala izatea, higiene- eta osasun-gomendio batzuk betetzea, animalien ongizateari eta bizikidetzari buruzko gomendio batzuk betetzea, eta ospitaleko langileentzako jardunbide egokiak izatea.

Bisita egiteko, beharrezkoa izango da artatzen duten osasun-profesionalen ahozko baimena izatea (bisita egokia den ala ez pazientearen ebolutiboan erregistratzea eskatzen da), eta mediku arduradunaren, gainbegiralearen edo erreferentziatzako erizaintzako langileen baimenak beharko dira.

Bisiten ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da, eta bisitaren iraupena 30 minutu ingurukoa izango da, egoera klinikoaren arabera luza daitekeena.

Pertsona gelan badago, ondoko pertsonaren ahozko baimena beharko da, eta, lortzen ez bada, pazientearen egoerak ahalbidetzen badu, elkargunera joko da, bai ospitalekoa, bai kanpoko.

Txakurraren laguntzaile-kopurua, hasiera batean, pertsona bat izango da, eta handitu egin daiteke pazientearen egoera klinikoa zein den (adibidez: 2 biloba etortzea nahi duen amona).

AUO Txagorritxuko pazienteen elkargunea hirukoitza izango da: kanpoaldean, ate nagusiaren aurreko zuhaitzi-gunean, teilape edo pergola bat jarriko da, eta barruan, beheko solairuko igogailuen atzeko hall-ean, edo ospitaleratutako pertsonaren gelan.

AUO Santiagon ere hirukoitza izango da, kanpoaldean: kafetegiaren atzeko zabalgunea, beste teilape edo pergola bat jarriko da, eta barruan, sarrerako hall-ean (prentsa saltzeko postu zaharra), edo ospitaleratutako pertsonaren gelan.

Prozedura da, pazientearen ardura duen osasun-taldearen baimena lortu ondoren, txakurrarekin doan pertsona telefonoz harremanetan jartzea zeladoreen arduradunarekin, bisitaren eguna eta ordua telefono-zenbaki honetan hitzartzeko:

AUO-Txagorritxu: Deitu 610 47 65 99 telefono-zenbakira, astelehenetik igandera, 08:00etatik 22:00etara.

AUO-Santiago: Deitu 677 955 047 telefono-zenbakira, astelehenetik igandera, 08:00etatik 22:00etara, eta 610 494 126 telefono-zenbakira, asteburuetan eta jaiegunetan, 08:00etatik 22:00etara.

Txakurra ospitaleetara joan aurretik paseatzea gomendatzen da, animaliak bere behar fisiologikoak kalean egin ditzan, eta bisita egin baino 15 minutu lehenago, txakurra daraman laguna telefonoz jarriko da harremanetan zeladoreen arduradunarekin, eta zain egongo da langileentzako sarrera-ateetan, bai AUO Txagorritxun (alboko atea), bai AUO Santiagon (alboko atea ere).

Zeladoreen arduradunak, MASKota identifikatu eta Albaitariaren Ziurtagiri Ofiziala aurkeztu ondoren, mantentze-igogailuaren (sarbide mugatuko igogailuak) bidez MASKotari lagunduko dio, eta haren arduradunari elkarguneraino. Barne-laguntza bada, bisita amaitzean, laguntzaileak zeladoreen arduradunaren telefono-zenbakira deituko du kanpora laguntzeko, eta gelaren elkarguneetan geratuko da zeladorea iritsi arte.

Laguntzaile bakoitzari poltsa bat eta zapi identifikatzaile bat emango zaizkio Biek hauek izango dituzte: Arabako ESlaren, Osasun Sailaren eta Arabako Albaitarien Elkargo Ofizialaren logotipoa eta MASK-Ospitale proiektuaren identifikazio-irudia. Bisitan, zapia txakurraren lepoan jartzea gomendatzen da. Poltsa eta zapia MASK-Ospitale proiektuan parte hartu izanaren oroigarri gisa gorde ahal izango dute, eta bisita amaitzean inkesta bat egingo zaio bisita baloratzeko eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 1ean



Albaitaritza Gida



Identifikazio-Zapia



Zeladore-maskota-laguntzaile sartzeko ta elkartzeko Zonak